


PAC NPB

E U S K A D I 2 3 - 2 7





Informazio gehiagorako www.euskadi.eus/npb2327
edo jo ezazu zure Eskualdeko Nekazaritza Bulegora
edo zure aholkularitza-erakundeari.

Informazio hau 2022ko abenduan eguneratuta dago.

OINARRIAK

NPB Nekazaritza Politika Bateratua	4
------------------------------------	---

BERRIKUNTZA NAGUSIAK

Berrikuntzak zuzeneko ordainketetan	6
-------------------------------------	---

Zuzeneko laguntzak jasotzeko baldintzak	7
---	---

Nekazari aktiboaren definizioa betetzea	7
---	---

Nekazaritzako jarduera egitea	7
-------------------------------	---

Baldintzapekotasun indartua betetzea	8
--------------------------------------	---

2024az goerotik baldintzapekotasun soziala betetzea	8
---	---

Laguntzak	11
------------------	----

Jasangarritasunerako errentarako oinarrizko laguntza (ABRS)	11
---	----

Ordainketa birbanatua	14
-----------------------	----

Errentarako laguntza osagarria gazteentzat	15
--	----

Eko-erregimenak	16
-----------------	----

Esparrua	16
----------	----

Larre Iraunkorretarako eta Bazkalekuetarako eko-erregimenak	17
---	----

Laborantza-lurretarako eko-erregimenak	19
--	----

Laborantza-lurretarako eta laborantza iraunkorretarako eko-erregimenak	21
--	----

Zurezko laboreen eko-erregimenak	23
----------------------------------	----

Lotutako laguntzak	24
--------------------	----

Nekazaritzarako lotutako laguntzak	24
------------------------------------	----

Abeltzaintzarako lotutako laguntzak	26
-------------------------------------	----

LANDA GARAPENEN LAGUNTZAK (FEADER)

Landa Garapeneko laguntzak (FEADER)	32
-------------------------------------	----

NPB berriaren zuzeneko laguntzetan

NABARMENDU beharreko 12 mezu	34
-------------------------------------	----



OINARRIAK

NPBren Plan Estrategikoaren

NPB Nekazaritza Politika Bateratua

NPB Europako estatu kide guztientzako politika bateratua da, eta nekazaritza jardueraren eta gizartearen, lurraldeen eta lehen sektorearen arteko elkarketa adierazten du EBren aurrekontuarekin finantzatutako eskema laguntzaile baten bidez.

NPB berri hau estatu kideen plan estrategiko bakarraren inguruan egituratzen da eta nekazaritzako errenta babesten eta sektorearen modernizazioa sustatzen jarraituko du berrikuntzaren, digitalizazioaren eta ezagutzak trukatzearen bidez ITUN BERDEKO erronkekin bat etorritz.

NPBren 23-27 Plan Estrategikoaren xedea da nekazaritzako elikagaien eta zuraren eta landa inguruaren balio-kateen behar ekonomikoei, sozialei eta ingurumenekoei erantzutea lehen eta bigarren zutabeko esku-hartzeen bidez.

NPBren Plan Estrategikoa Euskadin egokitzeko eta negoziatzeko, lankidetzeta estua behar izan da, batetik, Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiena, horiek arduratu baitira batez ere prozesuaren buru izateaz eta bestetik, sektoreko hainbat egilerena, horien ekarpenak funtsezkoak izan baitira.

Desakoplatutako laguntzak

ZUZENEKO LAGUNTZAK, EKOIZPENA DENA DELAKOIA IZAN ARREN:
Baldintzapekotasan indartua.

- Jasangarritasunerako errentarako oinarritzko laguntza.
- Laguntza birbanatua.
- Gazteentzako laguntza.
- Eko-erregimenak (klima eta ingurumena).

Neurri Sektorialak

SEKTORE BATZUETARAKO ZUZENEKO LAGUNTZAK:

- Ekoizpenari lotutako laguntzak.

PROGRAMA SEKTORIALAK

Landa garapeneko neurriak

- Muga batzuk dituzten eremuetarako konpentsazioa (adibidez, mendi eremuetarako).
- Ingurumen- eta klima-alorreko konpromisoak betetzeagatiko konpentsazioa (adibidez, ekoizpen ekologikoa).
- Inbertsioak (nekazaritzako produktuen eraldaketa, merkaturatzea eta garapena, oinarritzko zerbitzuak landa eremuetan, basogintzakoak).
- Ekintzailletza (nekazari gazteak finkatzea).
- Lankidetzak (kalitate-araubideetan parte hartzea, nekazaritzako eta elikadurako produktuen sustapena, ekoizleen taldeak, EIP-AGRI talde eragileak, beste lankidetzak modu batzuk, LEADER).
- Ezagutzaren eta informazioaren trukaketa (prestakuntza).



BERRIKUNTZA NAGUSIAK

NPBren Plan Estrategikoaren

Berrikuntzak zuzeneko ordainketetan

EGUNGOA

Oinarrizko ordainketaren
araubidea

Greening

Nekazari txikien
araubidea

Gazteentzako ordainketa

Lotutako laguntzak

ERREFORMA

Jasangarritasunerako errentarako
oinarrizko laguntza

Baldintzapekotasun indartua sartua

Jasangarritasunareko errentarako
oinarrizko laguntzan sartua

Gazteentzako ordainketa

Lotutako laguntzak

Ordainketa birbanatua **BERRIA**

Eko-erregimenak **BERRIA**

Zuzeneko laguntzak jasotzeko baldintzak

- **Nekazari aktiboaren** definizioa betetzea
- **Nekazaritzako jarduera** egitea
- **Baldintzapekotasun indartua** betetzea
- 2024az geroztik **baldintzapekotasun soziala** betetzea

Nekazari aktiboaren definizioa betetzea

Edozein pertsona fisiko edo juridiko edo talde:

- Europar Batasuneko nekazaritzako ustiategi baten titularra bada.
- Nekazaritzako jardueraren batean badabil.
- Garatutako nekazaritza-jardueraren enpresa-arriskua bere gain hartzen badu.

Honako baldintza hauetakoren bat bete behar du:

- Gizarte segurantzian afiliatuta egotea nekazaritzako jardueran.
- Bere guztizko sarreraren % 25 gutxienez nekazaritzako jardueratik etortzea.
- Iazko urtean zuzeneko laguntzen zenbatekoa 5.000 euro baino gutxiagokoa izatea.

Nekazaritzako jarduera egitea

- Nekazaritza profesionala nahiz lanaldi partzialean egiten dena sartzen dira (zeregin soziala eta ingurumenekoa).
- Nekazaritzakoak ez diren jardueren zerrenda negatiboan ez egotea.

Baldintzapekotasun indartua betetzea

2023-2027 aldian ingurumen- eta klima-alorreko asmoak indartu dira.

- Baldintzapekotasunean arauak eta praktika onak daude, guztiak ere nekazaritzako ustiategiek bete beharrekoak ingurumenaren, elikagaien segurtasunaren, animalien eta landareen osasunaren eta animalien ongizatearen alorrean.
- Baldintzapekotasuna ezinbestean bete behar dute zuzeneko laguntzak eta/edo landa-garapeneko azaleraren ordainketak jasotzen dituzten ustiategi guztiek. Ez-betetzeen ondorioz ordainketak murriztu edo eten egingo dira.

2024az geroztik baldintzapekotasun soziala betetzea

2024tik aurrera Baldintzapekotasun Soziala bete beharko da eta laneko legeria betetzen dela kontrolatuko du.



Nekazaritzako edo ingurumeneko baldintza onak sartu edo indartu dira:

NIBO 1: Larre iraunkorrak mantentzea:

Gehienez % 5eko murrizketa, erreferentziako urtearekin alderatuta.

NIBO 2: Hezeguneen eta zohikaztegien babes:

Soilik artzaintza. Gehieneko karga 1 ALU/ha (sasi-garbitzerik ez).

NIBO 3: Uztondoak erretzea debekatuta, arrazoi fitosanitarioetatik izan ezik.

NIBO 4: Ibai-ertzak:

- Gutxienez 5 metroko zabalera. Ezin da fitosanitariorik eta ongarririk erabili.
- Ez da nekazaritzako ekoizpenik izango, dagoneko landatutako zuhaitzak izan ezik. Artzaintza eta segatzea baimenduta dago.
- Landare-estalkia izango du, ereindakoa edo berezkoa, ondoko nekazaritzalurretik bereizten dena.
- Mantentzeko azaleko lanak baimentzen dira.

NIBO 5: Laborantzaren kudeaketa, narriatzeko arriskua murriztuz:

- Ez landu gehieneko maldaren norabidean, gunearen batez besteko malda %10 baino handiagokoa bada.

NIBO 6: Lurzoruaren gutxienerako estaldura:

- Lurra ez da irauliz landuko eta laborantza bertikalik ez da egingo uzta biltzen denetik irailaren 1era arte.
- Laborantza zurrara bada, % 10eko maldan edo handiagoan gutxienez metro bateko zabalera duen landare-estalkia mantendu behar da urritik martxora.

NIBO 7: Laboreak txandakatzea:

2023an ezartzeko salbuespena.

- Partzela gutzietan laboreak txandakatu gutxienez hiru urteren ondoren (urte anitzeko laboreetan izan ezik).
- Laboreen dibertsifikazioa:
 - Laborantza-lurra, 10 eta 20 ha artekoa:
Gutxienez, bi labore. Nagusia, %75 baino gutxiago.
 - Laborantza-lurra, 20 eta 30 ha artekoa:
Gutxienez, bi labore. Nagusia, %70 baino gutxiago.
 - Laborantza-lurra, 30 ha baino gehiagokoa:
Gutxienez, hiru labore. Nagusia, %70 baino gutxiago.
Bi labore nagusi, %90 baino gutxiago.
 - Salbuespenak: Egungoen antzekoak, belarren, larre iraunkorren... ekoizpena nagusi...

NIBO 8: Azalera eta elementu ez-produktiboak (EEP):

2023an ezartzeko salbuespena, biodibertsitatearen eko-erregimenarekin bat egiten ez badute.

- Laborantza-lurraren % 4 EEPraiko izan behar da.
- % 3ra murriztu daiteke, biodibertsitatearen eko-erregimenarekin bat eginez gero.
- EEP:
 - Lugarria / Ubideak babesteko lur-zatiak / Basoetako mugak / Pasaia-elementuak.

NIBO 9: Larre iraunkor sentikorrek goldatzea debekatuta.

NIBO 10: Ongarritze jasangarria:

- Ongarritatze-plana, ezartzen denean.

LAGUNTZAK

- Jasangarritasunerako errentarako oinarritzko laguntza (ABRS)
- Ordainketa birbanatua
- Errentarako laguntza osagarria gazteentzat
- Eko-erregimenak
- Lotutako laguntzak

Jasangarritasunerako errentarako oinarritzko laguntza (ABRS)

Kanpainako ABRS jasotzeko baldintzak:

- Ustiategiaren Erregistroan (SIEX) dagoen ustiategi baten nekazari aktibo titularra izatea.
- ABRS eskubideak izatea.
- Lurrak izatea (eskabide bakarra eskatzeko epemugan ordainketa-eskubideak justifikatzeko adina).

ABRS eskubideak aktibatu:

- Hektarea 1, eskubide 1, dagokion eskualdean.

Eskubideak kendu:

- Bi kanpaina jarraitutan aktibatu gabeko edo erabili gabeko eskubideak Erreserba Nazionalaren alde kentzen dira.
- Erreserba nazionaletik datozenak eta erabili gabeak kanpaina bakoitzean kentzen dira lehenengo 5etan.

Errenta-mugen oinarritzko laguntzari buruzko zenbatekoak Murrizketa:

- % 25ekoa, 60.000 eta 75.000 € artean.
- % 50ekoa, 75.000 eta 90.000 € artean.
- % 85ekoa, 90.000 eta 100.000 € artean.
- % 100ekoa, 100.000 euro gaindituz gero.

Banaka ezarriko da honakoetan:

- Nekazaritzako elikagaien kooperatibak, lan-sozietateen kooperatibak eta lurrraren ustiaketa komunitariokoak.
- ENS.
- Titulartasun partekatuko ustiategiak.

ABRS: Eskubideak

Eskualdeen sistemaren sinplifikazioa

- 50 eskualdetatik 20ra igaro da.
- Eskualdeen lurralde-oinarria zehazteko, 2020 Aitorpeneko ekoizpen-orientazioa edo SIGPAC 2020ren erabilera hartzen dira kontuan aitortu gabeko azalerentzat.

2015		2023	
Mota	Eskualdea	20E eredua	
LLL	801	LLL_0301	3. Eskualdea
LLL	2001	LLL_0501	5. Eskualdea
LLU	2001	LLU_0901	9. Eskualdea
LI	102	LI_0102	11. Eskualdea
LI	202	LI_0102	11. Eskualdea
LI	802	LI_0202+	12. Eskualdea
Larre I.	203	Larre I._0203+	16. Eskualdea
Larre I.	503	Larre I._0303+	17. Eskualdea
Larre I.	703	Larre I._0403+	18. Eskualdea
Larre I.	803	Larre I._0403+	18. Eskualdea

Eskubideen 2026ko batez besteko balioaren kalkulua:

- 2022an kobratutako oinarriko ordainketaren laguntzako zenbatekoen batura eskualde bakoitzean zati eskualde bakoitzean aitortutako guttizko azalera.

Barneko bateratze-prozesua:

- 2026an eskualde bakoitzaren eskubideen balioa gutxienez eskualdeko batez besteko balioaren % 85era iritsiko da.
- 2026rako gehieneko balio unitario bat ere ezarri da, eskualdeko batez besteko balioaren bikoitza. Inola ere ez da egongo 1.500 euro baino gehiagoko balioa duen eskubiderik.
- Erabateko bateratzea 2029an.

Ustekabeko onura:

- 2023an ustekabeko onuraren klausula ezarriko zaie 2022ko eta 2023ko eskaeran artean ustiatzearen egondako azalera aldaketei, baldin eta jasangarritasunerako errentaren oinarriko laguntza (ABRS) eskubideen balioan sekulako hazkundea eragiten badute, konbergentziaren gaineko ondorioak barne, eta ustekabeko onura ematen badiote nekazariari, aldaketa horiek egin ez balira gertatuko ez zena.

Erreserba Nazionala:

Eskatzaile mota berriak:

- Nekazaritzako jarduerak egin arren, jarduera batzuetan ordainketa-eskubideen onuradun inoiz izan ez diren nekazariak.
- Lurrak uztea saihesteko berregituratze-programei atxikitako eremuetan ustiatzeak dituzten nekazariak.

ABRS eskubideak lagatzea:

- Lurrik gabeko lagatzei %30eko ordainketa ezarriko zaie.



Ordainketa birbanatua

Ustiategi guztiei “lehenengo hektarengatik” egiteko ordainketa da, atalase bikoitzeko sistema batekin.

Ordainketa birbanatua:

(1. zatiko ha x 1. zatiaren zenbatekoa) + (2. zatiko ha x 2. zatiaren zenbatekoa).

Eskualde bat baino gehiagoko azalera dela aitortuz gero, proportzionaltasun-irizpideen arabera kalkulua egingo da.

Orientabidea	Eskualdea	Atalasea I. zatia (IZ ha)	Atalasea 2. zatia (2Z ha)
Lehorreko laborantza-lurra (LLL)	3	7,78	53,65
	5	1,21	10,32
Laborantza-lur ureztatua (LLU)	9	3,53	33,59
Laborantza iraunkorrak (LI)	11	2,61	17,68
	12	1,67	14,53
Larre Iraunkorrak	16	21,96	94,62
	17	10,26	51,72
	18	4,15	13,12



Errentarako laguntza osagarria gazteentzat

Laguntza hau jasotzeko baldintzak:

- Dirulaguntzaren lehenengo eskabidea egindako urte naturalean 40 urte bete gabe dituzten gazteak izatea.
- Lehenengoz eta duela gutxi ustiategiko buru izatea.
- 5 urte baino gutxiago egotea lehenengo instalazioaren eta ABRS eta/edo gazteentzako laguntza lehenengo aldiz eskatzearen artean.
- Ustiategiaren egiazko kontrola izatea (enpresa-arriskua eta egiazko kontrola).
- Nekazaritzako gutxieneko prestakuntza eta/edo gaikuntza izatea.

Laguntzaren zenbatekoa ordainketa-eskubideen eskualdeko batez besteko balioa da, gehienez ere 100 hektareara arte.

Onuraduna emakumea bada (ustiategiaren titularra/kotitulara), laguntza % 15 haziko da.



Eko-erregimenak



Esparrua

- Eko-erregimenak, laborantza-tipologiari lotuak.
- Borondatezkoa da eta ez da beharrezkoa eskubideak izatea.
- Urteko konpromisoak; konprometitutako hektareen arabera ordainketa.
- Baldintzazkotasunaren gainetik dagoen eskakizun-maila.
- Ustiategi batean eko-erregimen bat baino gehiago eska daiteke, nahi diren hektareen arabera.
- Hektarea berean praktika bat baino ez da kontatzen ordainketa ondorioetarako.
- Hektareako adierazitako primak gutxi gorabeherakoak dira, eta hektareako atalase batetik aurrera, gutxitu egingo da primen zenbatekoa.

1. Larreen esparrua

- P1: Artzaintza estentsiboa.
- P2A: Segatze jasangarria edo P2B: Biodibertsitate-uharteak.

2. Laborantza-lurren esparruak (lehorrekoak, lehor hezekoak, ureztatua)

- P3: Laboreak txandakatzea.
- P4: Zuzenean ereitea.
- P5: Biodibertsitate-guneak.

3. Laborantza zurkarren eremuak (lursail lauak, malda ertainekoak, malda handikoak eta zapaldak)

- P6: Landare-estalkiak.
- P7: Estalki geldoak.
- P5: Biodibertsitate-guneak.

Larre Iraunkorretarako eta Bazkalekuetarako eko-erregimenak

LARRE IRAUNKORRAK ETA BAZKALEKUAK		
Ustiategiaren kokalekua	Planifikatutako zenbateko unitarioa (€/ha)	Dedresibitate-muga (ha)
Larre hezeak: urteko batez besteko plubiometria (UBBP) ≥ 650 mm	62,16	65
Larre mediterraneok: UBBP < 650 mm	40,96	95

Artzaintza estentsiboa (P1)

- Bazkaren aprobetxamendua norbere animaliekin, behi, ardi, ahuntz, zaldi eta txerri estentsiboak.
- Artzaintzako gutxieneko aldia (jarraitua edo etena): 120 egun/urte (90 egun/urte, behar bezala arrazoitutako zergatiengatik).
- Gutxieneko eta gehieneko abeltzaintza-kargak (urteko batez bestekoa aukera daitezkeen azaleretan):
- Larre hezeak: 0,4 -2 ALU/ha.
- Larre mediterraneok eta uharteetakoak: 0,2 -1,2 ALU/ha.
- Praktika honetan sartutako larre eta bazkalekuen hektarea guztietan ibili behar dira animaliak, baina aipatutako egun guztietan ibili beharrik ez dago.
- Ustiategiko koadernoak: nekazaritzako partzeletara animaliek egindako sarrerak eta irteerak, edo abeltzaintzako mugimenduen gidaren bidez, beste ustiategi batera mugituz gero (REGA desberdina).
- Ustiategiko animalia guztiak erabili behar ez badira, bazkatzera eramatea aurreikusitako animaliak hartuko dira kontuan.



Biodibertsitate-uharteak

- Biodibertsitate-uharteak edo -guneak ezartzea (segatu gabeko lur-zatiak, paisaia- edo egitura-elementuak), ustiapeneko gune zehatzetan.
- Ustiapenean aitortutako segatzeko larreen % 7 hartuko dute. Segatu gabeko azalera hori urtez urte txandakatu ahal izango da.
- Azalera hori ezin izango da abuztuaren 31ra bitartean segatu. Egun horretatik aurrera, nekazaritza-, abeltzaintza-, edo mantentze-ustiapena egin beharko da (artzaintza estentsiboa, segatzea, sasi-garbitzea, lur-lantzea, ereitea, etab.), lurzorua nekazaritza- eta ingurumen-egoera onean dagoela ziurtatzeko. Egiten diren jarduera guztiak ustiapen-koadernoan jasoko dira.
- Debekatuta dago herbizidak erabiltzea.
- 2A aukera ez da bateragarria 2B aukerarekin. Biodibertsitate-uharteak hautatzen badira, ustiapen osorako hautatu beharko dira.

Segatze jasangarria

- Praktika hau ustiategiko hektarea segagarrietan egin ahal izango da.
- Segatzea urtaro begetatibo nagusian.
- Maiztasuna: 3 mozketa/urte (≤ 300 metroko altitueda) edo 2 mozketa/urte (> 300 metroko altitueda).
- Aprobetxamendurik gabeko aldia (segatu ezin den aldia):
- ≥ 60 egun ekaina eta abuztu bitartean.
- Bazka kontserbatzea: ahal dela ondua edo siloratzearen ordeko beste praktika batzuk (ahal den guztietan eta baldintza agroklamatikoei aukera ematen duten guztietan, bereziki Natura 2020 Sareko eremuetan).
- Ustiapen-koadernoa: segatze-egutegia eta egindako jarduketak.



Laborantza-lurretarako eko-erregimenak

Ustiapenaren kokalekua	Penintsulan planifikatutako prezio unitarioaren zenbatekoa (€/ha)	Degresibitate-muga (ha)
Lehorreko laborantza-lurrak	47,67	70
Lehorreko laborantza-lur hezeak	85,72	30
Laborantza-lur ureztatuak	151,99	25

Hobetze-espezien laborantza (P3)

- Hobetze-espezien txandakatzea urtero:
 - Aurreko laborantza ez den beste laborantza bati dagokion azaleraren $\geq 50\%$ urtero (salbuespenak daude).
 - Hobetze-espezieak dituen azaleraren $\geq 10\%$. Azalera horren erdiak lekadunak izango dira.
 - Azaleraren $\leq 20\%$ lugorrian (salbuespenak daude).
 - Lekadunak ongarri berde gisa onartzen dira.
 - Lekadunen ostean, hurrengo kanpainan, lursaila ezin da lugorri utzi.
- Malgutasuna azalera txikietarako (<10 hektareako laborantza-lurra):
 - Dibertsifikazio alternatiboa egin dezakete: > 2 laborantza.
 - Ez zaie eskatzen hobetze-espezierik izatea.



Zuzenean ereitea (P4)

- Lur-lanterik ez eta uztondoak lursailean mantentzea, laborantza-lurren $\geq\%$ 40an.
- Kontserbazio-nekazaritza gauzatzen den lurren laborantzak txandakatzea.
- Lur ureztatuak:
 - Ez da zehapen irmorik jarri behar ureztatzeko ura legez kanpo erabiltzeagatik.
 - Ongarriak aholkulari tekniko batek egindako ongarritze-plan baten arabera eta nekazaritza-lursailetan nutrizio jasangarrirako araudiarekin bat (egiten ari dira) aplikatuko dira.
 - Mantenu gaien eta materia organikoaren ekarpenari eta ureztatzeko urari buruzko oharrak.
 - Eremu zaugarrietako ustiapen-erako, nitratoen Zuzentarauak (91/676/EEE) baldintza gehigarriak jar ditzake.
- Zuzenean ereiteari dagokion zenbatekoari 25€/ha-ko osagarria eman ahalko zaio, baldin eta hurrengo urtean praktika bera gauzatzeko konpromisoa hartzen bada (konpromiso hori ez dago degresibitatearen mende).
- Azpial honen ondoretarako, lur ureztatuen azaleratzen hartuko da nekazaritza 8.2 artikulua arabera aitortutako ustiapen-sistema lur ureztatua dena, eta, gainera, SIGPACek halakotzat definitzen duena.
- Beharrezkoa da ongarritze-plana izatea laborantza-lur ureztatuen kasuan.



Laborantza-lurretarako eta laborantza iraunkorretarako eko-erregimenak

Ustiategiaren kokalekua	Planifikatutako prezio unitarioaren zenbatekoa (€/ha)	Degresibitate-muga (ha)
Laborantza-lurak eta laborantza iraunkorrak	56,04	Ez dagokio

Biodibertsitate-guneak ezartzea (P5)

- Jasangarritasunerako errentaren oinarrizko laguntzarako eskubide bat izan beharko da gutxienez.

Biodibertsitate-guneak: Zer dira?.

- Hormatxoak, putzuak, terrazak, landaredi-uharteak, paisaia-elementuak.
- Lugorri ereina.
 - 6 hilabetez, urtarrilaren 1 eta irailaren 30 bitartean.
 - Bi familia ezberdinetako nahasketaz ereina.
 - Aprobetxamendurik ez, salbu eta erleak, baldin eta ezti-erleak badira.
- Biodibertsitate-bazterrak eta -uharteak.
 - Bi espezie ezberdin dituzten lur-zatiak.
 - Ekoizpen-helbururik gabe.
 - Biodibertsitate-bazterrak: Gutxienez 2 metroko zabalera; gutxienez 25 metroko luzera.
 - Biodibertsitate-uharteak: Gutxienez 100 m² azalera.
- Uztatzekoak ez diren guneak: Irailaren 1era arte.

Ongarririk ez, ezta fitosanitariorik ere, uztatzekoak ez diren guneetan izan ezik.

Biodibertsitate-guneak, hartzen duten azaleraren gutxienez:

- 7% lehorreko laborantza-lur hezeak.
- 4% laborantza-lurak eta laborantza iraunkorrak.

2023an bai eskatzen da: ustiaketa osoan bete behar da 8. NIBOa.

- azalaren % 4 eta elementu ez-produktiboak (edo % 3).

Biodibertsitate-guneak ustiapenaren edozein laborantza-lurretan utz daitezke. Haztapan-faktoreak.

- Azalera ureztatua lehorreko azalera bihurtzea: Koef. 1,75.
- Lehorreko azalera ureztatu bihurtzea: Koef. 0,57.

Azaleraren eta elementu ez-produktiboen mota	Haztapen-faktorea
Biodibertsitateko lugorriak (1 m ² -ko)	1,5
Biodibertsitate-bazterrak (1 m-ko)	2
Euste-terraza (1 m ² -ko)	1
Heskaia/zuhaizti-guneak (1 m-ko)	2
Zuhaitz isolatua (zuhaitz bakoitzeko)	1,5
lilaran dauden zuhaitzak (1 m-ko)	2
Zuhaitz-multzoak (1 m ² -ko)	1,5
Eremu-mugak (1 m-ko)	1,5
Putzuak, aintzirak, urmaelak eta uraska naturalak (1 m ² -ko)	1,5
Landaredi naturaleko edo harkaitzeko uharteak eta enklabeak (1 m ² -ko)	1
Biodibertsitate-uharteak (1 m ² -ko)	1,5
Harri-pilak (1 m ² -ko)	1
Arkitektura tradizionalako elementuak (1 m ² -ko)	1
Zerealak eta lekadunak uztatzekoak ez diren lurak	1



Zurezko laboreen eko-erregimenak

Ustategiaren kokalekua	Planifikatutako prezio unitarioaren zenbatekoa (€/ha)	Degresibitate-muga (ha)
Lursail lauak	61,07	15
Malda ertaina	113,95	15
Malda handia	165,17	15

Berezko edo ereindako landare-estalkia (P6)

- Landare-estalkia (ereindakoa edo berezkoa), bizia edo ihartua, lurraren gainean urte osoan zehar. Estalkiak bizirik egon behar du, gutxienez 4 hilabetez urriaren 1a eta apirilaren 1a artean.
- Landare-estalkiaren gutxieneko dimentsioak (adaburuaren proiektzioaren zabalera askearen >% 40), malda handia duten lursailetan 1 m zabalagoa izango da estalkia.
- Landare-estalkia maneiatzea sega mekanikoaren edo sasi-garbitzearen bidez. Hondakinak lursaillean uzten dira, hasieran landare-estalkiak hartzen zuen espazioa estal dezaten.
- Salbuespenak salbuespen, landare-estalkiaren gainean ezin da produktu fitosanitariorik aplikatu.
- Landare-estalkiari dagokion zenbatekoari 25€/ha-ko osagarria eman ahalko zaio, baldin eta hurrengo urtean praktika bera gauzatzeko konpromisoa hartzen bada (konpromiso hori ez dago degresibitatearen mende).

Estalki geldoa (P7)

- Inausketa-hondakinak txikitu eta lur gainean utzi.
- Ustiapen-koadernoa: zein egunetan inausi den.
- Inausketa-hondakinezko estalki geldoaren gutxieneko dimentsioak (adaburuaren proiektzioaren zabalera askearen >% 40).
- Salbuespenak salbuespen, inausketa-hondakinezko estalki geldoaren gainean ezin da produktu fitosanitariorik aplikatu.



LOTUTAKO LAGUNTZAK



Zenbait eskakizun betetzen dituzten azalera edo animalia hautagarri bakoitzeko urteko laguntzak dira. Laguntza horiek jasotzeko, **nekazari aktiboa** izan behar da.

Nekazaritzarako lotutako laguntzak

Nekazaritzarako laguntzak / Aurrekontua (M €)	Tipologia	IU (€/ha)
Erremolatxaren ekoizpen jasagarria (17)	Udaberriko ereitea	591,75
Landare-jatorriko proteinen ekoizpen jasagarria (51,2)	Lekaleak	80
	Gainerako lekadunak	60
	Lekale-hazi ziurtatuak	80
	Gainerako lekadun-hazi ziurtatuak	60
Zailtasun espezifikoak eta ingurumen-balio handia dituen olibadia (27,6)	≤ 10 ha	42,76
	> 10 ha	21,38

Nekazaritzako laguntza	Hektarea hautagarria	Eskakizunak
Erremolatxaren ekoizpen jasagarria	Azukre-erremolatxa	<ul style="list-style-type: none"> - Hektareako 1 unitateko gutxieneko dosia - Azukre-industriarekin hornidura-kontratu bat sinatuta izatea - Barietate jakin batzuetako azukre-erremolatxa ekoiztea - Intsumoen kudeaketa jasagarria
Landare-jatorriko proteinen ekoizpen jasagarria	Lekadunen espezie zehatzak. Lekadunen eta beste laborantza baten nahasketak ere onartuko dira, baldintza zehatz batzuetan	<ul style="list-style-type: none"> - Barietate jakin batzuetako haziak erabiltzea - Laborantzaren garapen arrunterako eginkizun guztiak betetzea egoera fenologikoa lortu arte - Ureztatutako alpapa Abeltzaintza-ustiategi batekin hornidura-kontratua izatea edo ustiategi baten jabe izatea
Zailtasun espezifikoak eta ingurumen-balio handia dituen olibadia	Olibadia	<ul style="list-style-type: none"> - 2018an, 2019an edo 2020an NPbn deklaraturako edo RIAN inskribaturako lehorreko azalera - Zuhaitz-sailaren batez besteko adina: 10 urtetik gora - Zuhaitz-sailaren gutxieneko dentsitatea: 30 zuhaitz/ha edo gehiago - Zuhaitz-sailaren gehieneko dentsitatea: 100 zuhaitz/ha edo/eta lursailaren malda ertaina: % 25 edo handiagoa

Abeltzaintzarako lotutako laguntzak



Abeltzaintzarako laguntzak / Aurrekontua (M €)	Tipologia	IU (€/APS*)
Behi-esnearen ekoizpen jasagarria (122)	1º Mendia (1-150 behi)	181,66
	1º Penintsula (1-150 behi)	157,96
	2º Mendia (151-725 behi)	90,83
	2º Penintsula (151-725 behi)	78,99
Behi-azienda estentsiboa (186,6)	Ez-autoktonoa	90,25
	Autoktonoa	99,27
Txahalak jatorriko ustiategietan gizentzea (12,4)		32,03
Txahalen gizentze jasagarria (25,9)	1. tartea (1-600 txahal)	18,94
	2. tartea (601-1417 txahal)	9,47
Haragitarako ardi- eta ahuntz-azienda (131,6)		14,46
Esnetarako ardi- eta ahuntz-azienda (44,7)		12,49
Larrerik gabeko ardi- eta ahuntz-azienda (20)		10,28

*APS: Dirulaguntza jaso dezakeen animalia

Behi-aziendarako laguntzak

Behi-aziendarako laguntzak	Animalia hautagarria
Behi-esnearen ekoizpen jasagarria	Esnea emateko gai diren behiak ≥ 24 hilabete RIIAn inskribatuta, hiru data espezifikotan
Behi-azienda estentsiboa	Azken 20 hilabeteetan erditu diren behi inudeak RIIAn inskribatuta, 3 data espezifikotan. Eta zekorren % 15
Txahalak jatorriko ustiategietan gizentzea	6-24 hilabeteko txahalak, hiltegian hiltzeko edo esportatzeko, zuzenean edo bitartekaritzaren bidez
Txahalen gizentze jasagarria	6-24 hilabeteko txahalak, hiltegian hiltzeko edo esportatzeko, zuzenean edo bitartekaritzaren bidez



Ustiategi-mota	Eskakizunak
Esnea ekoizteko sailkapen zooteknikoa duen behi-aziendaren ekoizpena-ugalketa edo ekoizpen mistoa	Zuzeneko entrega/salmenten jakinarazpenak izan behar dituzte INFOLACen
Estentsibo gisa sailkatutako behi-aziendaren edo larre-motakoaren haragia ekoizteko edo ekoizpen mistorako ekoizpena-ugalketa	Hobari osagarria jasoko dute arraza autoktonoko animaliek. Horretarako, liburu genealogikoan edo ARCAN inskribatuta egon behar dute
Azienda estentsiboaren edo erdi-estentsiboaren haragia ekoizteko, ekoizpen mistorako edo esnea ekoizteko ekoizpen-ugalketa	Gutxienez hiru animalia hautagarri
Gizendegikoa den eta sailkapen zooteknikoa duen behi-aziendaren ekoizpen-ugalketa	Gutxienez hiru animalia hautagarri



Ardi- eta ahuntz-azientarako laguntzak

Ardi- eta ahuntz-azientarako laguntzak	Animalia hautagarria	Ustiategi-mota
Ardi- eta ahuntz-azienda estentsiboa edo erdiestentsiboa (131,6), haragi-ekoizpena	Ardi eta ahuntz eme ugaltzaileak / DAO	Saillkapen zooteknikoa izan eta larre-ustiategikoa den ardi- eta ahuntz-azientaren haragia ekoizteko edo ekoizpen mistorako ekoizpena-ugalketa
Ardi- eta ahuntz-azientaren esnearen ekoizpen jasagarria	Ardi eta ahuntz eme ugaltzaileak / DAO	Saillkapen zooteknikoa duen ardi- eta ahuntz-azientaren ekoizpen-ugalketa edo ekoizpen mistorako ekoizpen-ugalketa
Lugorrietan, uztondoetan edo baratze-uztaren hondakinetan bazkatzen den ardi- eta ahuntz-azienda, eskura larrerik ez duen abeltzaintza estentsiboa eta erdiestentsiboa barne	Ardi eta ahuntz eme ugaltzaileak / DAO	Saillkapen zooteknikoa duen ardi- eta ahuntz-azientaren ekoizpen-ugalketa haragia eta esnea ekoizteko, ekoizpen mistorako eta larreetarako ekoizpena-ugalketa



Eskakizunak

- Gutxienez 30 ardi eta 10 ahuntz ustiategian
 - Eme hautagarriko 0,6 bildots/antxume gutxienez aurreko urtearen ekainaren 1a eta eskaera egiten den urteko maiatzaren 31 artean
 - Atalasea lortzen ez badute, laguntza lortzeko eskubidea duten animalien doikuntza egingo da merkaturatutako antxume/arkume kopuruarekin. Horretarako beharrezkoa izango da egindako irteerak gutxieneko atalasearen % 50 edo handiagoak izatea.
-
- Gutxienez 30 ardi eta 10 ahuntz ustiategian
 - Gutxieneko esne-entregak 80 litro ardiko edo 200 litro ahuntzeko, aurreko urteko ekainaren 1etik eskabidearen urteko maiatzaren 31ra, eta aurreko urteko zuzeneko salmentak.
 - Atalasea lortzen ez badute, laguntza lortzeko eskubidea duten animalien doikuntza egingo da merkaturatutako antxume/arkume kopuruarekin. Horretarako beharrezkoa izango da egindako irteerak gutxieneko atalasearen % 50 edo handiagoak izatea.
-
- Gehieneko abeltzaintza zama 1,2 ALU/ha
 - Bateragarria ardi-eta ahuntz-aziendarako aurreko biekin.
 - Uztondoetan, lugorrietan edo norberaren edo besteen baratze-uztaren hondarretan bazkatzea
 - Larreak deklaratu gero, eskakizun bereziak





Landa Garapeneko

LAGUNTZAK (FEADER)



Esku-hartze horiek gauzatzeko, aurreikusten da gastu publiko kofinantzatu osoaren 87,9 milioi euroko a izango dela 2023-2027 aldirako, eta horietatik 56,7 milioi euro Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsari (FEADER) dagozkio. Halaber, funts propioen (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak) aurrekontu-zuzkidura gehigarria aurreikusi da, 130 milioi euro ingurukoa, programatutako esku-hartze guztietarako.

Ingurumen-, klima- eta kudeaketa-konpromisoak

20,7 milioi € (FEADER), 31,2 milioi € (gastu OSOA)

Ekoizpen integratua

Laborantza jasangarriak

Larreen sustapen eta kudeaketa jasangarria

Erlezaintza

Nekazaritza ekologikoa

Baliabide genetikoen zaintza

Muga naturalak edo beste muda espezifikoko batzuk dituzten eremuak

7,3 milioi € (FEADER), 27,8 milioi € (gastu OSOA)

Muga naturalak dituzten eremuetarako laguntzak

Lankidetzak

9,1 milioi € (FEADER), 50,4 milioi € (gastu OSOA)

Kalitate-araubideetan parte hartzea

Nekazaritzako eta elikadurako produktuen sustapena

Ekizleek elkarterako lankidetzak

EIP-Agri talde eragileak sortzea

Beste lankidetzak modu batzuk

LEADER

Inbertsioak

17,3 milioi € (FEADER), 95,2 milioi € (gastu OSOA)

Nekazaritzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta/edo aratzeko inbertsioak

Inbertsio ez-produktiboak landa-guneetako oinarritzko zerbitzuetan

Inbertsio produktiboak basogintzan

Ekintzailtzak

1,6 milioi € (FEADER), 10,2 milioi € (gastu OSOA)

Nekazari gazteak finkatzea

Ezagutzen eta Informazioaren trukaketa


0,4 milioi € (FEADER), 2,3 milioi € (gastu OSOA)

Prestakuntza



NPB berriaren zuzeneko laguntzetan **NABARMENDU** beharreko 12 mezu

1. **Nekazari txikien erregimena** desagertuko da: esku-hartzeen diseinua bakarra da laguntzen eskatzaile guztientzat.
2. **Nekazari aktiboa** izateko, laguntzak jasotzeko atalasea igo egin da kanpaina bakoitzeko 1.250 eurotik 5.000 eurora.
3. **Greening** bidezko ordainketa desagertu da, baina baldintzak ez, nahitaez bete behar baitira **baldintzapekotasuna ezarrita (NIBO 1, 7, 8)**.
4. Esku-hartze talde berri bat sortu da, **eko-erregimenak**, borondatez eskatzen da eta zenbait praktika gauzatzearen arabera ematen da, bakoitzak duen azalera motaren arabera.
5. **Errentarako oinarrizko laguntza** lotu gabeko ordainketaren zenbatekoak pixkanaka murriztu egingo dira 60.000 eurotik aurrera, titular eta kanpaina bakoitzeko.
6. Azaleraren araberako ordainketa-eskubideak birmoldatu dira, eskualde berrietara egokitu dira nekazariak ezer egin beharrik gabe; bakoitzaren **banako eskubide kopurua** ez da aldatuko.
7. Aurrera egin da **konbergentzia** prozesuan, 2026an eskubide guztiek eskualdeko batez besteko balioa baino 2 aldiz balio nominal handiagoa izango dute gehienez, inoiz ere ez 1.500 euro baino gehiago.
8. **Erreserba nazionalak** emandako eskubideak ezingo dira 5 urtean laga eta 5 urteetako bakoitzean erabili beharko dira, bestela, kendu egingo dira.
9. **Lurrik gabeko eskubideen lagapenetan** ezarri beharreko ordainsaria % 20tik % 30era igo da.
10. Jardueran sartu den gaztea **emakumea** bada, **gaztea izateagatik** **osagarriaren** zenbatekoa % 15 haziko da.
11. **Lotutako laguntzak** mantendu egin dira egokitzapen txiki batzuekin, baina **ardi eta ahuntz azienden** ustiatagietarako laguntzak nabarmentzen dira: emateko atalaseen eskakizun-maila murriztu egin da.
12. **Bitarteko elektronikoen** bidez administrazioarekin izaten diren komunikazioak ezartzeko beste urrats bat egin da: berehala jarriko da abian **ustiatagiko koaderno digitala**.



PAC
EUSKADI 23-27
NFB